

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

136/2020 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa. Onarpena ematea Lapuebla de Labarcako Udalak eskaera batean atzera egiteari; hain zuzen ere, Lapuebla de Labarcako udalerriko 2 poligonoko 519 lurzatian (lurzoru urbanizaezina) egurrezko begiratoki bat instalatzeko Balferpa SL enpresak aurkeztu duen proiektuaren interes publikoa adierazteko eskaeran atzera egiteari

Balferpa SL enpresak obra lizentzia eskatu dio Lapuebla de Labarcako Udalari, Lapuebla de Labarcako udalerriko Ortuño finkan (2 poligonoa, 519 zenbakiko lurzatia, lurzoru urbanizaezina) egurrezko begiratoki bat instalatu ahal izateko, mahastietako bisita gidatuak bultzatzeko asmoz.

Lapuebla de Labarcako Udalak espedientea bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen parte dira proiektuan jasotako instalazioaren aurrekontua eta haren krokisa, bai eta udal arkitektoak egindako txostena ere. Txosten horretan adierazten denez, lurzatia lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta 7. Zona. "Substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona" ren kalifikazioa duen lursailean dago, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetan aurreikusitakoaren arabera, eta erabilera publikoko eta gizarte intereseko instalazioak dira jasota agertzen den eraikuntza erabilera baimendua.

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren ekainaren 2ko 117/2020 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespena ematen zaio espedienteari eta xedatzen da 20 eguneko jendaurreko informazio aldia hastea, eta haren iraunaldian, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Foru agindu hori ALHAOren 66. alean argitaratu zen, 2020ko ekainaren 12an.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2020ko ekainaren 17ko sarrera data duen idazki baten bidez, Lapuebla de Labarcako Udalak adierazi du Balferpa SL enpresak atzera egin duela bere eskaeran. Horiek horrela, eskatzen du bukatutzat jo dadila espedientearen xede den interes publikoa adierazteko prozedura.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientearen ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera.

Bigarrena. Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 94. artikuluan xedatutakoarekin: "1. Interesdun orok atzera egin ahal izango du bere eskaeran (...)

3. Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez, baldin eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak badituzte.

4. Administrazioak bere horretan onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura (...)"

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea Lapuebla de Labarcako Udalak eskaeran atzera egiteari; hain zuzen ere, Lapuebla de Labarcako udalerriko Ortuño finkan (2 poligonoa, 519 zenbakiko lurzattia, lurzoru urbanizaezina) egurrezko begiratoki bat instalatzeko Balferpa SL enpresak aurkeztu duen proiektuaren interes publikoa adierazteko eskaeran atzera egiteari, eta bukatutzat jotzea AHI-072/20-J01 espedientean izapidetutako prozedura.

Bigarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera, edo egoki jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO